


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a / 686. zenbakia


BABES OFIZIALEKO ETXEAK

EGUENEAN 100 ETXEBIZITZA
ZOKKETATUKO DITUZTE



ORAIN ETA HEMEN: EMAKUME TXOKOAREN EGITARAU/6 • ZAHARRAK: GRIPEAREN AURKAKO TXERTO/14

KALEINKESTA/ Eutanasian gaiñeko debatie barriro be zabaldu da; ze pentsetan jatzu?



SEGUNDO FIGUEREDO
Jubilau



VERONICA PARRA
Ikasle




JON UNAMUNO
Langabie



MAITE OROBENGOA
Langillie



NAIARA UNAMUNO
Langabie



XABIER BERGARETXE
Langillie

Neuri pentsetan jat lege-
tue izen biherko leukela.
Sufrituduten dabillenanda-
no soluziñue da, eta baitte
berakin sufrituduten dabi-
zen lagun eta familia-
mendako be.

Gaixuek hori gure badau
neuk ez dauket iñungo pro-
blemarik. Bere arazuek
konponbiderik ez badauko
eta ez badauko iñungo bizi-
tza kalidaderik, neuri ondo
pentsauko litxakit.

Neuk pentsetan dot per-
tsona bakotzak izen biher
dauela bere bizitzan jabe,
eta gaixo batek pentsetan
badau nahikue sufritu
dauela, hori errespetau
egin biher da.

Eutnasiak legalizaute egon
biherko leuko, pertsona
bakotzak neurtu biher dau-
eta zenbat sufritu gure
dauen. Askotan, makiñei
esker bizi die, eta hori sufri-
mendue luzeketie da.

Pertsona bat sufrituduten
badabil, eta bizi izeten
jarraiketako iñungo ilusi-
ñorik ez badauko, neuk
ondo ikusten dot eutanasia
apliketie. Pertsonie bere
bizitzan jabe ez bada...

Neuk pentsetan dot bako-
txak euki biher dauela ze
gure dauen elegiduteko
eskubidie. Bizi dana sufri-
duten ibilttie... Bizitza kali-
dadie be errespetau egin
biher dala uste dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ALDAPA ARRISKUTSUEGIA Herritar batek kexa bat hela-
tze digu. Zailtasunak dituztenak errepidera jaisteko aldapetako batzuk
arriskutsuak direla, hain zuzen. Izan ere, aldapa batzuek malda han-
tlegia daukate, eta horregatik edadetu bat baino gehiago jausi egin da.
Herritar hori zailtasunak dituztenendako maldak jartzearekin ados dago,
baina txikiagoak egitea eskatu du.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 9

KULTURA / 12

Monterronen egoera

Aditu batzuek
egin duten
ikerketaren
arabera, 36
zuhaitz bota
beharko dituzte.

Besaideko oroimen eguna

Aramaioko Orixol
Mendi Elkarteak
antolatu du, eta
aurten ere mendi-
zaleak omenduko
dituzte.

Film emanaldiak Amaian

Gaur, egubakoi-
tza, eta biher,
Shrek filma
emango dute
Amaia Udal
Antzokian.

ASTEKODATUA

36

**ZUHAITZ BOTAKO DITUZTE
MONTERRON PARKEAN**

Hainbat adituk Monterron par-
kean egin duten ikerketaren ara-
bera, zenbait zuhaitz ahul daude.
Horregatik, Udalak aditzera
eman zuen horietatik 36 bota
egin beharko dituztela.

BESTEKEKESANA

**“Mila urtetan zehar, giza bizitza zerbaite-
taz nabarmendu bada, giza-
zakiak lur azaletik gaizkia ezabatzeko
burutu ahalegin jarraikiarengatik
izan da. Porrota ere halakoa gertatu
da, izanaren eta izan beharko
lukeenaren artean diferentzia
nabaria eman baita beti. Eta gorpil
ero baten antzera, gizarteak
iluntasuna ezagutu du argitasunera-
ko egitura eraikitzen ari zela
pentsatu duen bakoitzean. Aro,
erregimen, nolakotasun eta baldintza
guztiak berdintsuak gertatu zaizkio
gizadiari bere ezintasunean.
Duintasunaren aldeko apustua egin
ahal izan duen arren, teoriarik
behintzat, gizakiaren garapen
integralari dagokion gutxieneko
oinarrian bertan egin du txirrista
gizarte zibilizatuak”**

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
‘ARGIA’/04-09-12

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Egunerokoa

Aztoratuta dator “ikas-
turte berria” esaten
duten hori. Gertakari
ugari buruan, udak ere
izan baititu gorabeherak:
batetik, ZP eta JJren talantea,
planak, plan gehiago, marke-
tinga, hitz merkeak, itxurak
eta itxurak... bestetik, Oihane
Errazkinen erailke-
ta, dispertsioaren
istripuak, atxiloke-
tak, Asturias eta
Galizako ekintzak,
Euskal Jai gaztetxe-
aren utzaraztea,
beste hainbat
gaztetxeren aurka-
ko erasoak, karga
polizialak nonahi...
Azken egunotan,
Ipar Osetiako heriotzak,
Karibe ingurua astintzen ari
diren urakanak, uholdeak...
Bero-bero dator “ikasturte
politiko” deitzen duten hori
ere, eta iazko hainbat ikasgai
oraindik airean: kontsulta,
Nazio Ertabidagunea, autode-
terminazio eskubidea... beste
hainbat mamu ere oraindik
inguruan bueltaka: 18/98
makrosumarioa, euskal
presoen egoera larria, europar
konstituzioa, apartheid politi-

koa eta hauteskunde autonomi-
koak...

Eta kalean ere nabaritzen
hasi dira aurpegi ilunak,
begirada grisak, mutur luzeak.
Iraileko *aldapa* delakoa
guztiok buruan. Eguneroko
zurrumbiloan nahastu eta
betiko kontuetan, itsu-itsuan,

**“Eguneroko
zurrumbiloan
nahastu eta betiko
kontuetan, egun
monotonoei aurre
egiteko momentua
iritsi da”**

egun monotonoei
aurre egiteko
momentua iritsi da:
kreditu eta hipote-
kak, eguneroko
bizioak, futbola,
arropak, trago eta
pintxoak, zigarro-
txoak, haxixa,
telebista, sakelako-
ak, autoak, kreditu
txartelak, plastikoz-
ko neska-mutikoak... kontsu-
moan, eguneroko zoramenean,
itsu-itsuan jarraituko dugu
guk.

Eta beste batzuek berriz, ez
dute udatik hona aldapa
handirik nabarituriko. Preso
dagoenak, urrunean isil
dabilenak, egunerokoari aurre
egitea besterik ez duenak, uda
zein negu... egunerokoari aurre
egitea, eguneroko ogi bihur-
tzen den horietan... patxo bat,
zuei danoi.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Amaia Mundiniano
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Arantzazu Arana

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

120 lagun extremadurarren egunean

Joan den zapatuan, Corazon de Encina kultura elkarteak Extremadura Eguna ospatu zuten Landan, Guadalupeko Amaren eguna, hain zuzen.

Goizean joan ziren Landara; hamarretakoa prestatuta, Extremadurako gazta, ardo eta sandia lehiaketa egin zuten. 120 lagun inguruk Landan bazkaldu eta gero, arratsaldean umeendako eta gazteendako jolasak egin zituzten. Eta, jaia behar den moduan amaitzeko, karaokea egin zuten San Andres auzoko egoitzan.

'Agenda 21' proiektua dela-eta, ikastaroan

Arrasateko hainbat ikastetxek *Agenda 21* proiektuan egingo dute aurten lan. Eta, ikastetxe horietako irakasleek ikastaroak izan dituzte, gero, ikastaroan ikasitakoa eskolan emateko. Aurtengo ikasturteko gai nagusia ura izango da, hori da-eta iaz landutako zaborraren gaiarekin batera ikasle eta irakasleak gehien arduratzen dituen gaia.

Uraren gainean azterketa asko egingo dituzte, hainbat ikuspuntutatik landuta. Lortutako emaitzen arabera eta egindako hausnarketak kontuan hartuta Arrasateko Udalari proposamenak egin beharko dizkiote gero.

Ekaitzak sortutako kalteak

Joan den egunean eta egubakoitzean ekaitza izan zen Arrasaten, eta gura beste ur bota zuen. Euskal Herriko herri askotan moduan, Arrasaten ere ekaitzak kalteak sortu zituen. Brigadako arduradunen esanetan, Arrasate ez da ekaitza dagoenean kalte handiak izaten dituen herri horietakoa; baina, joan den asteko ekaitzak direla-eta, herrian putzu handiak sortu ziren eta hainbat enpresatan ura lantegi barrura sartu zen. Zenbait garajetan ere larri ibili ziren, ura barruraino sartu zen-eta.



Ehunka lagun Arrasatetik Arantzazura

Joan den domekan, ehunka lagun joan ziren Arrasatetik Arantzazura oinez, urteroko erromesaldian. Arrasatetik Gesaltzara iristerakoan, autoz joandako beste hainbat lagunekin elkartu ziren, eta handik otoitzean joan ziren Arantzazuraino. Frantziskotarrek ongietorria egin zieten Basilikara iristean eta eguerdian meza entzun zuten.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Zinemagintza

Hau irakurri orduko hasita egongo da Donostiako Nazioarteko 52. Zinemaldia. Aurten, beste batzuetan baino luxuzko gonbidatu gehiago etorriko dira, eta nazioarteko begiak Donostiara begira egongo dira.

Orain dela bi urte, berriz, mundu guztia AEBetako irailaren 11ren lehenengo urteurrenari begira zegoene-

an, Bilbon ertzantza ezker abertzaleak deitutako manifestazio erraldoi bat zapuzten saiatu zen indarke-riaz. Norbaiti eskerrak ez zen izugarritzko sarraskia gertatu, baina begi bat galdu zuena ere izan zen. Euskal Herrian ere film onak egiten diren erakusle (*Aupa Etxebeste* baino lehenago), batzuek gertaeren gidobertsioak eman zituzten.

Egun hauetan Lakuako Barne Saileko ordezkariek batzuek horren gaineko azalpenak eman behar izan dituzte epaitegietan. Steven Spielberg zuzendariak Palestina hainbat zatitan banatuko duen harresiari babesa ematen hain lanpetuta egongo ez balitz, agian Barne Sailekoen gidoia aprobetxatuko luke.

Zoritxarrez, Euskal Herrian diru gutxi dago zinema egiteko, baina egon ziur istorioak ez direla falta.

ASTEKOIRUDIA



MUSAKOLAKO BARRUKO IGERILEKUAK KANPOKOARI HARTU DIO LEKUKOA

Joan den astelehenean zabaldu zuten Musakolako kiroldegiko barruko igerilekua. Hortaz, barrukoak lekukoa hartu dio kanpokoari. Aukeak emandako datuen arabera, aurten iaz baino lagun gutxiago ibili dira. Hala ere, arrasatearrek eta ibarreko beste lagun batzuek gustura erabiltzen dute zer-

bitzu hori. Astelehenetik aurrera, erabiltzaileek bainatzeaz gain, eguzkirik hartu ezingo duten arren, beste abantaila batzuk izango dituzte. Hain zuzen ere, lehen sorospentarako lokal bat egokitu dute igerilekuan bertan, eta ordutegia zabaldu egin dute. /I.B.

Lilura
OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa.
Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5. behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40



BIZIKLETAREN LANTEGIA ETA BIR-ZIKLETA, ASTEBURUAN

Autorik Gabeko Astea dela-eta, oraingo asteburuan hainbat ekimen egingo dituzte. Eta, autoa alde batera utzi eta hara eta hona ibiltzeko garraiobide aproposa da bizikleta. Gaur, egubakoitza, 17:00etan bizikletak zaintzeko lantegia izango da Herriko Plazan. Mikel Lizarralde bizikleten balaztak zela aldatu, zulaketak zela konpondu, gurpilak zela zentratu eta beste hainbat gauza irakatsiko ditu. Era berean, konpondu beharreko bizikletak eraman daitezke, aukera egonez gero, plazan konponduko dituzte-eta. Bihar, berriz, Bir-Zikleta azoka egingo dute Herriko Plazan. 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era egongo da azoka irekita. Azoka horretan bigarren eskuko bizikletak eta osagarriak erosteko aukera izango da.




SINGAPURKO JATETXEETAN BAINO HOBETO EMANGO DUTE JATEN MARISANEAN, ALA?

Cesar Azkarateren eta Larrait Arriolabengoa-ren argazkia iritsi zaigu, orain dela egun gutxi Singapurko jatetxe batean ateratakoa. Jakina, argazkia ez dute eurek bidali ARRASATE PRESSera; beste barik, iritsi egin zaigu (dena ez dugu kontatuko). Cesar eta Larrait irailaren 4an ezkondu ziren, Azkoagan. Bazkaria, berriz, Marisan egin zuten. Ezkonberriak hurrengo egunean joan ziren ezkonbi-

daian. Argazkian ez dakigu zer dabilzan jaten, baina ezkontza eguneko bazkarian atera zuten solomilloak itxura hobea zuen. Okela eta marisko ederra jatetik igel-hankak, krokodiloa eta kangurua jatera. Eta makilatxoekin, gainera! Hori bai, gustuen gainean ez dago ezer idatzita... Orain Sydney aldean dabilzala kontatu digute. Horrenbestez, lagunena eta familiakoena partetik, zorianak, bikote!!!

BITXORI

ile apaindegia



Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebendun hizkiak

Meson Manolo

Eguneko menua
Karta zerbitzua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Arrazioak

Bañez Dokorea 3. San Andres auzoan
Tel.: 943 79 22 40

Datorren astean, babes ofizialeko 100 etxebizitza zozketatuko dituzte

UBANE MADERA

Datorren egunean, hilak 23, babes ofizialeko 100 etxebizitza zozketatuko dituzte Uarkapen. EBko ordezkarri Ander Rodriguezek jakinarazi digunez, Etxebiden izena emanda duten 907 lagun artean egingo dute zozketa.

Esandako moduan, 100 etxebizitza zozketatuko dituzte. 58,79 metro koadro eta 90 metro koadro bitarteko etxebizitzak izango dira. Prezioak, berriz, honako hauek: 88.071,05 eta 119.407,92 euro bitartean, garajea eta trastelekua barne.

Etxebizitzak egin barik daude oraindik. Zerrajeran egingo dituzte. Aurreikuspenen arabera, 2006aren amaiera baino lehen. 7.457.978,08 euro inbertituko ditu Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak lanotan.

IA MILA ESKATZAILA

Guztira, 907 lagunek parte hartuko dute zozketan. Bost kupotan banatuko dituzte: zailtasunak dituztenak; guraso bakarrek familiak; antzinakotasunaren arabera izena eman dutenak; 35 urtetik beherakoak eta kupo orokorra. Izan ere, etxebizitzak familia eskatzaileen ezaugarrien arabera bana-



Uarkapen egingo dute zozketa, hilaren 23an, 12:00etan.

tuko dituzte. Hala, zailtasunak dituztenen kupoan gurgildun aukian dabilzanak sartu dituzte. Hiru halako daude, eta zozkatzeko lau etxebizitza. Esleitu barik geratzen den etxebizitza lehenago etxebizitarik lortu ez duten zailtasunak dituztenen artean zozkatuko dute. Bestalde, guraso bakarrek 12 familia onartu dituzte zozketan; haien artean hiru etxebizitza zozkatuko dituzte. Antzinakotasunaren arabera 276 lagunek parte hartuko du zozketan; haien artean 38 etxebizitza zozka-

tuko dituzte; bestalde, 35 urtetik beherako 492k parte hartuko dute eta 45 etxebizitza zozkatuko dituzte haien artean. Bukatzeko, kupo orokorrean hamar etxebizitza daude, 124 lagun artean zozkatzeko.

JAURLARITZAKO ORDEZKARIAK

Eguenean egingo dute zozketa, Uarkapen, 12:00etan. Besteak beste, Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo, haren ordezkarri Javier Dean, Arrasateko alkatea eta Garapen Saileko buru Joseba Ugalde izango dira.

Abendura arteko egitarau oparoa Emakume Txokoan

U.M.

Ikasturte hasieratik abendura arteko egitaraua prestatu du Emakume Txokoak. Ikastaroak, lantegiak eta hitzaldiak izango dira oinarri. Ikastaro guztiak irailaren 27an abiaraziko dituzte. Irailaren 20tik 24ra bitartean eman behar da izena.

Irailaren 27an hasiko diren ikastaroen artean, tai chi, barreteria, yoga, menopausiaren gainekoa, esku-lanen gainekoa eta dantzen gaineko ikastaroak aipa ditzakegu, adibidez. Abenduaren 17an bukatuko dira ikastarook eta astean behin edo birritan izango dira eskolak. Prezioa, berriz, hamar euro langabeendako eta 20 euro gainerakoendako. Emakumeek bakarrik parte hartu ahal izango dute ikastaroetan. Esandako moduan, datorren astele-

henetik egubakoitzera bitarteko epea dago izena emateko.

Horrez guztiaz gain, urriaren hasita bestelako ekimenak antolatuko ditu Emakume Txokoak. Adibidez, urriaren 6an, 13an eta 20an, bizikletak konpontzeko eta zaintzeko lantegia egingo dute. Interesatuok urriaren 4a baino lehen eman beharko dute izena. Prezioa hiru eurokoa da. Bestalde, urriaren 20an hasita 0-3 urte bitarteko umeen gurasoei (aita zein ama) zuzendutako masaje-lantegia izango da. Urriaren 15a baino lehen eman beharra dago izena.

GAY ETA LESBIANEN DAKO ESPARRUA

Horrekin batera, Emakume Txokotik jakinarazi digute datozen hilabeteotan gay eta lesbien zuzendutako ekimenak egin gura dituztela, Aldarte elkartearekin elkarlanean. Hain zuzen ere, haiendako topaleku bat sortu gura dute.

Urrian hasiko dira Gurasoen Eskolak, seme-alaben heziketan laguntzeko

U.M.

Seme-alaba gazteen heziketan sortzen diren kezka eta zailtasunak argitzen laguntzeko, Gurasoen Eskolak izango dira beste urtebetez. Urrian hasiko dira, abendura arte; guztira, hamar saio. Interesa duenak irailaren 30a baino lehen eman beharko du izena.

Seme-alaben hezkuntza eta haiekin hobeto komunikatzen laguntzeko antolatzen ditu Udalak Gurasoen Eskolak. 0 eta 18 urte bitar-

teko seme-alabak dituzten gurasoei daude zuzenduta. Urriatik abendura bitartean izango dira eskolak, hamar saio, astero egun bat. Interesa duenak irailaren 25a baino lehen eman behar zuen izena baina orain hilaren 30era arte luzatu dute epea. Izena Udaleko Prebentzio Zerbitzuan, 943 79 09 00 telefonoan edo Prebentzio@arrasate-mondragon.net helbidean eman beharra dago. Udala izena ematen dutenekin harremanetan ipiniko da taldea osatzeko eta hasierako eguna finkatzeko. Izan ere, asko jota 25 laguneko taldea

egingo dute. Honako edukiak aztertuko dituzte, besteak beste: anorexia eta bulimia; familia; komunikazioa familian; seme-alabekin harremana, anai-arreben arteko harremanak, borroka; nola hezi autoestimazio ona lortzeko; drogamenpekotasun prebentzioa; ondoko egoerak gobernatzeko trebetasuna; elikadura, loarekin arazoak, beldurak, agresibitatea... Horrez guztiaz gain, arreta pertsonalerako tarrea ere izango da, kezka partikularrak argitzeko. Baita haurtzaindegi zerbitzua ere.



Garagartzan, San Migel jaiak

San Migel jaiak dituzte Garagartzan hilaren 24an, 25ean 26an eta 29an. Besteak beste, egubakoitzean, ibarreko bertsolariek saioa egingo dute 19:45ean; eta gauerdian, ongiatorria egingo diete *Lamie* eta *Neanderthalgo gizakiei*. Zapatu goizean, meza eta umeendako jolasak izango dira. 16:00etan, umeendako futbol partiduak eta 18:00etan, Gorritiren animaliak. Horren ostean, 20:00etan, Garagartzako I. Neanderthal Kontzertua egingo dute eta gero Haika DJ izango da. Domekan, auzokoek bazkaria egingo dute eta eguaztenez, besteak beste, Patxizenez luntxa izango da.



ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aukilak

Adituen esanetan, uste baino gutxiago aldatuko da Monterronen itxura

UBANE MADERA

Monterronen 36 zuhaitz bota beharko dituzte. Hala jakinarazi zuen parkearen egoera aztertu duen adituak. Botako diren zuhaitzen erdiak haritzak dira, parkearen ekialdean daudenak. Dena dela, adituaren esanetan, parkearen itxura ez da horrenbeste aldatuko.

Gabriel Iguñiz adituak esan zuen, oro har, behar bezala zaindu barietateko parkea dela Monterron. Zuhaitz larregi dagoela pilatuta, eta horren ondorioz, zuhaitzak larregi hazi direla altueran, argi bila. Eta zuhaitzok zahartu direnean, larregiko garaiera horrek ahuldu egin ditu eta horrexegatik ibili dira jausten azken urteotan. Hain justu ere, azken 15 urteotan 22 zuhaitz desagertu dira Monterrondik.

BOTA EGIN BEHAR

Gauzak horrela, eta irtenbide posible guztiak aztertu eta gero, zera proposatu du Gabriel Iguñiz adituak: 36 zuhaitz botatzea. Horien artean botako dituzte parkearen ekialdean dauden haritz guztiak eta pago bat; parkearen aurre aldean dauden koniferak (6-7); anfiteatro gaineko bideko bost zuhaitz (tardean, ezkia) eta goiko bidetik



Esan zuten irailaren amaieran edo urriaren hasieran hasiko direla zuhaitzak botatzen.

gertu dauden zenbait zuhaitz. Era berean, beste zuhaitz batzuei adaburuak moztuko dizkiete, Indiako gaztainondoei, esaterako.

SEKUIAK EGOERA ONEAN

Hori bai, Monterronen eta Arrasaten horren preziatuak diren sekuoiak ez daudela arriskuan jakinarazi zuen Gabriel Iguñizek. Apur bat siku daude zenbait lekutan, eta akaso konponketa-ren bat egin beharko dizkiete, bai

na ez dituzte botako eta jausi ere ez dira jausiko.

ALDAKETA HANDIRIK EZ

Dena dela, zuhaitz asko bota behar dituzten arren, Gabriel Iguñizek esan zuen Monterronen itxuran ez dugula aldaketa larregi igarriko. Parkearen aurreko aldea apur bat gardenago geratuko dela, baina gainerakoa berdin ikusiko dugula. Gainera, zuhaitz zaharrak bota ostean, berriak sartuko dituzte.

LABUR

Arrasateko udaletxeko langileek bertan behera utzi dituzte lanuzteak

Irailetik aurrera grebak egiten segitzeko asmoa zuten udaletxeko zenbait langilek, lan hitzarmenaren alde. Hain zuzen ere, aurreikusitakoaren arabera, datorren astean bi egunez egin behar zuten lanuztea. Baina eguaztenean egoera aztertzeke batzarra egin zuten eta ikusita EAEn Arrasatekoa dela greba egiten dabilen udal-tertxe bakarra, erabaki dute protesta ekimenekin jarraituko dutela, baina ez dutela lanuzte gehiago egingo. Hemendik aurrera, beraz, langileen enpresa batzordeak segituko du protesta egiten; hala, Udalaren Tokiko Gobernu Batzarretan, osoko bilkurretan eta Mankomunitatearen gobernu batzarretan elkarteratzeak egingo ditu, lan hitzarmena negoziatzen segitzeko.

Arrasate-Gesalibar taxi-bus zerbitzua handitu egingo dute astelehenetik aurrera

Datorren astelehenetik aurrera (hilak 20) Arrasate-Gesalibarrera doan taxi-bus zerbitzuari bidaiari bat gehitu diote. Hain zuzen ere, eta gaur egun dagoen gainerako autobus konpainien zerbitzuak kontuan hartuta, erabaki dute 13:30ean beste joan-etorri bat egitea taxi-busarekin. Hala, guztira, egunean zortzi joan-etorri egingo ditu. Horrez gain, erabaki dute hemendik aurrera taxi-busa Gara-gartzara ere sartuko dela Arrasate-Gesalibarrera doanean.

Hemendik aurrera, autokarabanak industrialdeetan aparkatu ahal izango dira

Orain dela hiruzpalau urte, debekatu egin zuten autokarabanak aparkatzea Arrasateko hiri-lurrean. Arrazoia zen mota horretako ibilgailuek espazio asko okupatzen dutela, gehienetan, denbora luzez. Orain, aldiz, Arartekoak partikular batek egindako kexua onartu egin du. Haren esanetan, zenbait ibilgailuk autokarabanek beste espazio okupatzen dute eta ez zaie debekurik ezartzen. Horren aurrean, Udalak erabaki du autokarabanen gaineko araudia aldatzea eta baimena ematea halako ibilgailuak industrialdeetan aparkatzeko.



Amagara

Erdiko kalea 54, behea. Tel.: 943 79 09 09

MARITXU KAJOI 2004

Ederra egongo zara zure beltzaran kolorearekin

Promozio berezia:
6 saio ordu erdikoak + 1 doan
42 euro bakarrik!!!
Irailaren 17tik urriaren 15era

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentibilitatearen arabera ere.

TXAKURREKIN EGINDAKO URETAKO SALBAMENDU PROBAK

"Bihar, Lekeition, oso ariketa ikusgarriak egingo dituzte Terranova txakurrekin"

Bigarren urtez, Terranova txakurrekin salbamendu probak egingo dituzte Estatutik eta Portugaldik etorritako 23 lagunek

XABIER URZELAI

Mertxe Valdivieso arrasatearra Lekeition izango da bihar. *Lur* eta *Hartz* txakurrak eramango ditu berarekin, baina ezin izango dute probetan esku hartu, Mertxe izango da-eta epailea. 23 parte-hartzaile izango dira maila ezberdinak eskuratzeko probak egiten.

Mertxe Valdivieso orain dela sei urte pasatxo hasi zen *Lur*-i lehenengo ariketak erakusten: "*Lur*-ek urte erdi zuenean hasi nintzen lehenengo ariketak erakusten. Orduan ez ziren salbamendurako ariketak, oinarritzko ariketak ziren. Gero, Elorrion izan ginen lur gaineko salbamenduko ariketak ikasten, baina Terranova txakurrak uretako txakurrak dira, eta uretako salbamendu ariketekin hasi ginen".

Mertxeren esanetan, ordutik hona gauza asko aldatu dira, eta hara eta hona kilometro asko egin eta gero *Lur*-ek dagoeneko laugarren maila eskuratu du: "*Hartz*, berriz, gazteagoa da; lau urte ditu, eta hirugarren maila atera gurako genuke, baina denborarik gabe nabil. Gainera, Lekeition epaile lanak nik egingo ditudanez, ezin dut neure txakurra baloratu. Horretarako Valentziara joan beharko dugu".

Orain talde propioa badute ere, hasieran lagun gutxi zebiltzan horrelako probak egiten: "Lehen Valentziara joaten nintzen asko, baita Pirinioetara eta Guadalajarara ere. Horrez gain, Italiara ere joan izan gara txakurrekin probak egitera. Italian gauzak bestelakoak dira: uretako salbamenduan laugarren maila



Mertxeren esanetan, ez da komeni txakurra ariketekin nekatzea: "Poliki-poliki irakatsi behar zaizkie ariketak, jolas modura".

"Niri ez zait parean tokatu, baina 'Lur'-en arreba batek ume bat atera zuen uretatik, Zaragozan"

la duen txakurra izanez gero, eta jabeak sorosle titulua izanez gero ez dago inongo arazorik txakurra hondartzara eramateko". Txakur

"Terranovek indar handia dute, gauza dira bost pertsona dituen txalupari tira egiteko"

kurak horren prestatuta izan eta gero, inoiz norbait salbatu behar izan duten galdetu diogu Mertxeri: "Inoiz ez zaigu parean

"Italian, erakustaldi batzuetan Terranova txakurrek helikopteroetatik egiten dute jauzi"

tokatu, baina *Lur*-en ahizpa batek itotzen zebilen ume bat atera zuen Zaragozan. Haurrak karranpak zituen hankan, eta lagunak

harriak botatzen zebiltzan, jolasen. Txakurrak atera zuen mutilla uretatik". Mertxek Terranova txakurra nolako den azaldu digu: "Badirudi San Bernardoen antza daukatela baina oso txakur ezberdinak dira. Terranovak oso lasaiak dira, baina indar handikoak. Kontuan izan behar da horrelako txakur bat gauza dela bost pertsona dituen txalupari tira egiteko".

PROBA IKUSGARRIAK

Bihar, lehenengo mailatik hasi eta laugarren mailara arteko probak egingo dituzte Lekeition: "Oso proba ikusgarriak dira, laugarren mailakoak batez ere. Adibidez, txakurrak hainbat metro-tako distantziara bananduta dauden bi lagun atera behar dituzte uretatik. Lagun bat hilda dago, eta bestea itotzen. Txakurrak jakin behar du lehenengo itotzen dabilen lagunarengana joan behar duela, eta gero hilda dagoen gorpuarengana. Biak hartu eta hondartzara ekarri behar ditu. Proba ikusgarriak dira. Italian, adibidez, txakurrek helikopteroetatik egiten dute jauzi".

Zapatuko proban Mertxe epailea izango da, baina domekan erakustaldia egingo du: "*Lur*-ek eta biok asko gustatzen zaigun ariketa egingo dugu domekan. Bi lagun txalupa batean joango gara, txakurrekin batera, eta laguna uretara eroriko da. *Lur*-ek eta biok uretara egingo dugu jauzi. Nik laguna helduko dut, eta *Lur*-ek tira egingo digu. Hondartzara iritsitakoan ni telefonotik deitzera joango naiz, laguntza eske, eta *Lur*-ek lagunaren ondoan etzan beharko du berotasuna emateko".

Urriaren 18an hasiko da Zaldibarko Txapelketa

X.U.

Zaldibarko Txapelketako antolatzaileak dagoeneko lanean dabiltza, aurtengo txapelketa antolatzeko asmoarekin. Dagoeneko esan dute txapelketa noiz hasiko den: urriaren 18an.

Txapelketan izena emateko egunak, berriz, urriaren 4a eta 5a izango dira, Monterrongo jauregian. Antolatzaileak 19:30etik 20:30era arte izango dira Monterronen. Txapelketan esku hartzeko, taldeek 195 euro ordaindu

beharko dituzte. Kopuru horretatik 125 euro izena emateko izango dira, eta gainontzeko 70 euroak fidantza moduan jarriko dituzte. Horrez gain, antolatzaileek urriaren 4a eta 5a aroketarako dituzte joan den urteko fidantzak itzultzeko.

AURTENGO ARAUAK

Joan den urtean hainbat arau berri ezarri zituzten, eta badirudi ez dela aldaketa nabarmenik izango. Hala ere, izena ematearekin batera antolatzaileek arauen gaineko argibideak eman gongo dituzte.



Dribling eta Saukelu Scream taldeek jokatu zuten joan den urteko finala; izena ematen badute, aurtengoa ere faborito izango dira.

ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

Hondarribia eta Mondra lehenengo postuarengatik lehian, zapatuan

XABIER URZELAI

Hondarribia eta Mondra dira sailkapenean lehenengo postuetan dauden bi taldeak. Eta, elkarren kontra jokatuko dute oraingo asteburuan. Hondarribiak talde ona eta indartsua du, eta, gainera, badaki bere futbol zelai txikiari etekina ateratzen.

Mondrak Hondarribiaren zelaian jokatu du bihar, zapatua, 16:30ean. Oartzunen kontra eta Bergararen kontra egindako lanari esker 4 puntu ditu Mondrak, eta puntu horiei esker bigarren postuan dago Arrasateko taldea. Lehenengo postuan dagoena, baina, Hondarribia da. Mondraren oraingo asteko kontrarioak Aretxabaletaren eta Pasaiaren kontra jokatu du lehenengo bi norgehiagoketan. UDARI 3-0 irabazi zioten, eta Pasaiaren zelaian puntu bat eskuratu zuten (1-1).

ALDAKETA GUTXI HONDARRIBIAN

Hondarribiako taldeak joan den urteko taldeari eustea lortu du, eta hori ez da albiste ona, kontrarioendako ez, behintzat. Mondrak badaki talde horren kontra jokatzea zer den, eta esperientzia handiko jokalariek izateaz gain, euren zelaia ondo baino hobeto hartu diote neurria. Joan den denboraldian 10. postuan amaitu zuten Ligan; oso indartsu hasi ziren, eta Gabonetan hirugarren mailara igotzeko hautagai argia baziren ere, bigarren itzulian nabarmen egin zuten behera. Aurten ere ondo hasi dira, ikusi egin behar zenbat irauten duten.

Mondrari dagokionez, Josu Zubiaren mutilek akats gutxi egin beharko dituzte Hondarribian. Orain arteko ikusita, behintzat, zaletuak ilusionatzeko moduko taldea duela erakutsi dute; batez ere joan den astean Atxabalpen erakutsi zutenarekin. Lehenengo



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Domekan, Iker Lopezek egin zuen Mondraren lehenengo gola.

minututik hasita Mondra ahalegindu zen baloiaren jabetza izaten, eta lehenengo zatian Bergarako atzelariekin behin eta berriz topo egin bazuten ere, Bergara gora egiten ahalegindu zenean, Mondrak ondo aprobetxatu zuen hori.

Atzealdean taldeak sendotasuna erakutsi zuen. Aurrealdean, berriz, etorri diren jokalariek maila polita erakutsi zuten, eta lehendik zeudenek ere ederki egin zuten lan. Aurrealdean gogotsu ibili ziren Lopez eta

Dovao, eta aipagarria da Asier Gonzalez *Tiri*-k erakutsi zuena ere. Intentzio osoarekin ematen diren bi ostikada jaso zituen, baina txintik ere ez zuen esan. Daukan odol beroari eusten badio esan gabe doa jokalariek garrantzitsua izan daitekeela.

REALA IKUSTEKO SARRERAK, MONTEN

Monte tabernak datorren astelehenean eta martitzenean banatuko ditu eguaztenean Realaren eta Racingen arteko norgehiagokak ikusteko sarrerak.

FOTOKIROLA



Besaideko Oroimen Eguna, domekan

Domekan omenduko dituzte Besaiden mendian hil diren euskal mendizaleak. Aurtengo Besaideko Oroimen Eguna Aramaioko Orixol Mendi Taldeak antolatu du. Jakin, meza 11:00etan izango dela. Bestalde, jakin baita ere, Besaideko lagunek Gipuzkoako Birako beste etapa bat egingo dutela irailaren 26an. Oriotik Donostiarako ibilbidea egingo dute. Izena emateko egunak, astelehenean eguenera arte, Besaideren egoitzan./X.U.

Berrikuntzak ireki berri duten igerileku klimatizatua

X.U.

Joan den astelehenean ireki zituzten Musakolako igerileku klimatizatuak, baina ireki aurretik hainbat lan egin dituzte. Lan horien helburua izan da igerilekuen gaineko araudi berria betetzea.

Lan horietako bat izan da igerilekua garbitzeko ur beroaren zirkuitua eta pertsonen kontsumorako ur hotzaren zirkuitua egokitzea. Hala, lan horiekin legionelosiari aurre egiteko higiene-osasun irizpideak bete dituzte.


Horrez gain, lehen sorospenetarako lokal bat egokitu dute igerilekuan bertan. Izan ere, igerilekuen araudi berriak eskatzen du igerilekuan bertan lokal bat

izan behar dela lehen sorospenak emateko gertatuta. Lokal horrek izango ditu ohatila, botikina eta beste hainbat elementu, lehen sorospenak emateko beharrezkoak direnak.

Ordutegiei dagokionez, igerileku klimatizatua astelehenean egubakoitzera 07:30etik 21:00etara egongo da irekita. Zapatu gozetan, 09:00etatik 13:30era arte, eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara arte. Domeka eta jaiegunetan, azkenik, 09:00etatik 13:00etara irekiko dute igerilekua.

11.707 SARRERA GUTXIAGO

Kanpoko igerilekuari dagokionez, aurtengo udan 41.714 sarrera izan dituzte, joan den urtean baino 11.707 sarrera gutxiago. Izan ere, aurten ez du horrenbeste bero egin.



ARRASATE PRESS

laz baino jende gutxiago izan da aurtengo udan kanpoko igerilekuan.

Marixutarako elegante jantzi zaitez!

Sikol

Olarte 31 - ARRASATE
Tel.: 943 79 89 32

BOTEPRONTUEN

Ramon Bidaburu

BIDABURU AROZTEGIA

XABIER URZELAI

Ramon oin dala urte batzuk San Andresen euen Uribetxebarria aroztegixen hasi zan lanien. Gero, baiñe, berak esaten dauen moduen, kartzelara juen zan bakaziñotan. Kartzelatik urtenda-kuen lehengo aroztegixe zerrautete topau euen, eta barrixe martxan jartie pentsau euen.

Nundik nora ibilli zara agostuen?

Donostian eta Teruelen. Teruel ezaguketako asmuekin juen nitzen, eta astebete egin neuen han. Existiduten da Teruel, eta oso politte da, gaiñera.

Eta, lanera bueltie gogorra izen da?

Oso gogorra, ondo gabitzenien agudo ohiketari gare-eta.

Egurrekin egitten dozue lan, baiñe zertan?

Gehixenbat etxietan egitten dogu lan, atiek jarten, leihuek jarten, markuek...

Ze da gatxaue: barrixe ipinttie ala zaharra barriztie?

Horri erantzuteko, zaharra zela dauen ikusi biher. Jeneralien ez dau merezi barriketie; barrixe jartie hobe.

Eta, mondraguetarra izenda, taillerra Zubillagan?

Bai. Aroztegi zaharreko makiñak hartu eta leku bille hasi nitzen. Mondraguen pabeloiek oso garesti euzen, eta Zubillagara etorri gitzen. Lan haundixena, baiñe, Mondraguen eta inguruetan egitten dogu.

Ze egur klasekin egitten dozue lan?

Piñuekin, haritzekin eta Gineako egurrekin egitten dogu lan.


Termitak diela-eta, kontuz ibilli biherko dozue, ala?

Ez dogu eukitten holako problemarik. Geuk egur barrixekin egitten dogu lan, eta termitak egur zaharrien egoten die.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Osasune eukittie.

Igerten da Zubillagan egin dauen bariantie?



X.U.

"Taillerra Zubillagan daukogu, baiñe lan haundixena Mondraguen egitten dogu"

Auzo barruen igerten da kotxe gutxiau dabilela, baiñe behin hasitte, Mondragueraiño egin biherko leukie tunela, San Prudentziaraiño ez jueteko. San Prudentzioko rotondie egin euenien hartu geuen lasaittu galanta; hori igerrri egitten da.

Lana alde batera itxitte, ze falta jako Mondragueri?

Neu oso Mondrague-zalie naz, baiñe zerbitzu batzuk falta jakola pentsetan dot.

Eta, ze dauko ona?

Herrixen ambiente politte egoten dala.

Ze falta jatzu zeuri?

Dirue.

Eta, ze dauketzu sobran?

"Euskal Herriko edozein mendittan dauen txabolaren baten pasauko neuke aste bukaerie"

Ulie. (Barre)

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Ez naz zine-zalie / Aspaldi leidu neuen Juan Mari Irigoien *Poliedroaren hostoak* liburue/ Hertzainak.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Egixe esatierren, ez dot egitten etxeko lanik.

Kapritxo bat.

Ez dauket kapritxo berezirik. Horrei ez dakit ze erantzun.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Euskal Herriko edozein mendittan egon leiken txabolaren baten.

NIREBIDAIAHURA/ Leire eta Irati

Europako ekialdea / 2004ko abuztuan

Leire Lardizabal eta Irati Pagoaga Kroaziako kostaldean utzi genituen joan den astean. Hegoaldek hiri bururako bidea hartu zuten, Zagrebera: "Leku turistikoak berehala konpondu dituzte, kostaldean ez zirudien orain dela urte gutxi gerran izan zirenik, baina hiriburuan bai. Leku asko erabat apurtuta zeuden, nabarmena zen gerrak utzitako arrastoa. Zagreb oso gutxi zainduta dagoen hiria dela iruditu zitzaigun. Han, gainera, ez dago turismo handirik, eta dirua ematen duten inguruak konpondu egin dituzte".

Kroaziatik Esloveniara abiatu ziren Arrasateko bi lagunak: "Zagrebetik Ljubljana joan ginen. Europako lurralderen bat ezagutu gura duenari, Kroazia eta Eslovenia gomendatuko genizkioke. Eslovenia oso lasaia da, han ez genuen lapurren beldurrik izan eta hango jendearekin oso tratu ona izan genuen". Paraje politak ei daude lurralde horretan: "Bost egun egin genituen Eslovenian; deigarria iruditu zitzaigun hango errekek zein politak diren. Gainera, kobazuloetan ere ibili ginen".

Eslovenia utzi eta Budapestera joan ziren: "Budapestean ez ginen oso gustura ibili. Oso kaotikoa iruditu zitzaigun, eta, gainera, hizkuntzarekin arazoak izan genituen. Horrez gainera, 1 Formulako lasterketa bat Budapestean jokatu behar zuten, eta nahiko lan izan genuen lo egiteko lekua aurkitzen. Hori bai, informazio-guneetan zeudenek ez ziguten ulertzen, baina multak jartzen zituztenek ederki ulertzen zituzten. Behin, hiri barruan trenez ibiltzeko egun osoko txartela hartu genuen. Eskatu, behintzat, hori eskatu genuen, baina badirudi txarto ulertu zigutela: joanaldi bakarreko txartela eman ziguten. Txartel-zulatailea etorri zenean hasi ginen esaten guk egun osokoa genuela erosita, baina ez zegoen ezer egiterik, multa ordaindu behar izan genuen. Gainera, esango genuke Budapestean desatzen daudela turistek multak jartzeko".

XABIER URZELAI



Eslovenian ateratako argazkia, Vintgar-en.

"Budapestean desiratzen daude turistek multak jartzeko"

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

GORKA ileapaindegia peluqueria
Orduetgia:
Astelehenerik-ostiralerik 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

Gertu
Mitarte 10
ARETXABALETAK
943 77 06 12

- Plater prestatuak
- Familia edo lagun arteko bazkariak
- Bestelako ospakizunak

Udazken - negua

04



ERDIKO KALEA 14 ARRASATE
943 79 46 94



Anna Mora

TRUSSARDI
JEANS



OKY-COKY



SAGA IBAÑEZ

BANDOLERA

MARC AUREL

Mytime

ALMA
GITANA

GENFINS

Hermes Govantes

MARIONA GEN

ALDO MARTIN'S

ALBA CONDE

Cadena La Maglia





Ekin Emakumeak

2003-2004 ikasturtean, Ekin Emakumeak elkarteko lagunek taloak zelan egin erakutsi zuten hainbat herritan.

Eskulan eta orratz lanen ikastaroak, Ekin Emakumeak elkartearen eskutik

IKER BARANDIARAN

Herriko beste hainbat talderen moduan, Ekin Emakumeak elkarteak ikasturtea gogotsu hasi du. Datoren egunetan eskulan ikastaroa eta orratz lanen tailerra egingo dituzte. Jo izena ematera.

Ekin Emakumeak elkarteak urte mordoia darama emakumeendako ekimenak antolatzen eta arlo horretan euskara bultzatzen. Ikasturte aldaketarekin bat, hainbat ekintza antolatu dituzte datoren egunotarako.

Batetik, irailaren 28tik abenduaren 14ra eskulan ikastaroa egingo dute. 10-12 lagunendako talde txikian eskulanetako hainbat teknika ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa izango da. Egurra, laminak, margotzea, birziklapena, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala landuko dituzte, besteak beste. Mila Akizu izango da irakaslea, eta irailaren 24a

baino lehenago eman beharko dute izena interesatuek.

Horrez gain, joan den ikasturtean moduan, oraingoan ere orratz lanean tailerra Musakolara eramango dute. Asmoa da auzoetan ere halako ekimenak egitea. Atzo, hilaren 16a, hasi zuten eta abenduaren 16ra arte iraungo du. Eguenero izango da, 15:00etatik 17:00etara bitartean.

10-12 lagunek talde txikian orratz lanen teknikak ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa da. Besteak beste, puntua, kakorratza, bainika eta gurutze puntua landuko dituzte. Asun Mendizabal izango da irakaslea. Interesatuek lehenbailehen deitu beharko dute honako telefono zenbakira: 651 70 79 36.

JOAN DEN IKASTURTEA, GAZI-GOZOA

Bost urteotan Ekin Emakumeak elkarteko arduradun izan den Leire Aperribai joan den ikasturtearen gaineko balantze gazi-gozoa egin du. Zorritzarez, dan-

tza ikastaroetako irakasle Natalio Maiztegi gaixotu eta hil egin zen. Kolpe handia izan zen hori Ekin Emakumeak elkartearen dako.

Bestela, Aperribai pozik agertu zen sukaldaritza hastapeneko ikastaroak eta joskintza tailerrak izan zuten harrerarekin. Biak hala biak, batez ere, gazteendako izan ziren. Bi helburu nagusi zituzten: bata, gazte horiek euren kasa baliatzeko gauza izatea; eta bestea, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko lan banaketa. Horren aldeko pausoak eman zituztela azpimarratu zuen.

Bestalde, 2003-2004 ikasturtean, eskulan ikastaro beteranoak bere horretan jarraitu zuen, eta lehenengo aldiz ikastaro bat Musakolara eraman zuten.

Are gehiago, urtero Arrasaten ematen dituzten talogintza ikastaroak Atarrabian eta Elorrion egin zituzten.

Laster beste ekimen batzuen berri emango digute.

Berrero hasi dira film emanaldiak egiten Amaian

I.B.

Bihar, zapatua, eta etzi film emanaldiak egingo dituzte Amaia Udal Antzokian. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan, eta domekan, 17:00etan eta 19:00etan, *Shrek 2* animaziozko film emango dute.

Asteburu honetan filmak emango dituzte Amaia Udal Antzokian. Ikasturtea hasiko duena *Shrek 2* izango da. Bihar eta etzi emango dute, egun bakoitzean bi emanalditan. Ziur arrasatear askok gustura asko hartu dutela berria.

Shrek 2 animaziozko filma da baina ez da umeendako eta gaztetxoendako bakarrik. Are gehiago, seguruenik helduendako aproposagoa da. Film horrek 92 minutu irauten du, eta Andrew Adamson, Kelly Asburyk eta

Conrad Vernonek zuzendu dute. Honako hau *Shrek*-en jarraipena da, eta lehen zatiak izugarritzko arrakasta izan zuen. Izan ere, diru gehien jaso duen animaziozko filma izan da; *Buscando a Nemo* lanak baino gehiago.

AITAGINARREBAK EZAGUTUKO DITUZTE

Film horrek aurrekoaren harria jarraitzen du. *Shrek* eta Fiona ezkon-bidaiatik bueltatu dira eta bikotea Fiona printzesaren gurasoak ezagutzera joango da. Errege-erreginek ez dute *Shrek* gustuko, eta horregatik bikoteak arazoak izango ditu.

Gaztelerazko bikoizketa honako lagun hauek egin dute: Cruz y Raya taldeko Juan Antonio Muñozek eta Jose Sanchezek eta Antonio Banderas aktoreak.

Hilaren 25ean eta 27an, Buschen aurkako *Fahrenheit 9/11* dokumentala emango dute.



ARRASATE PRESS

Shrek 2-k lehenengo filmaren ildoak segitzen du.

KULTURAPILULAK

Loixe zeramika elkarteak urrian hasi eta ekainera bitarteko ikastaroa egingo du

Loixe zeramika elkarteak urrian hasi eta ekainera bitarteko ikastaroa egingo du. Ikastaro horretan hainbat teknika emango dituzte: modelatua (eskultura, murala, pieza erabilgarriak...), apainketa teknika, tornua eta beste batzuk. Ordu-tegiari dagokionez, bi aukera daude: batetik, martitzen eta egunetan, 19:00etatik 21:00etara; eta bestetik, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Horrez gain, martitzen egunera, 17:00etatik 18:30era, umeek ikasiko dute.

Hileroko kuota 20 euro da, eta ikasle eta langabeendako berriz, 15 euro. Eskolak Nafarroa etorbidearen 23.ean izango dira. INEMen parean. Gazte Bulegoan eman dezakezue izena.

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Maritxu kajoi egunerako hartu txanda!
Orraztu eta makilatu 21 €

Lapuri 3. Zigarrola. ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

E, TXO!

GUREGAIK/ ETXEBIZITZA BILA

Unibertsitateko ikasle asko etxebizitza bila dabilta sasoi honetan

IKER BARANDIARAN

Ikasle askok dagoeneko hartuta izango dute 2004-2005 ikasturterako etxebizitza, baina beste asko azkeneko orduan ibiliko dira zeregin horretan. Txoko merkeak aurkitzea oso zaila da.

Ikasle gehienek iraileko azterketak bukatu dituzten arren, orain beste zeregin bat dute: etxebizitza aurkitzea.


Lagun taldea osatu eta unibertsitateko edo hedabideetako iragarkietan begiratu behar. Etxebizitzaren alokairua oso garestia da, bai Bilbon, Iruñean, Donostian, Gasteizen eta Arrasaten. Esanenezake guztietan prezioak pareko daudela.

HIRIBURUETAN ETA ARRASATEN, ANTZERA

Donostian, esaterako, etxebizitza gehien alokairua 600 euro baino garestiagoa da; jakina, ura, gasa eta bestelako gastuak kontuan hartu barik. Etxebizitza merkeenak Intxaurren, Trintxerpen eta Egian aurki daitezke, baina ez dute alde handirik. Eta Antigua asko garestitu da, unibertsitatea gertu duelako.

Arrasaten 540 euroko etxebizitzak aurki daitezke, baina orokorrean alokairuak 600 euro baino garestiagoak dira. Erdialdean eta unibertsitate inguruan garestienak.

Hori dela eta, gazteek alternatibak bilatzen dituzte. Gero eta joera handiagoa dago ikasleek etxeak okupatzeko. Edo erdibideko kasuak: Trintxerpen ikasle



ARRASATE PRESS

Non-nahi aurki daitezke etxebizitzak alokatzeko edo osatzeko iragarkiak.

batzuek etxearen jabearekin negoziatu zuten alokairu sinboliko baten truke han bizitzea.

Jabeak gurago zuen etxea gazteek zaintzea, etxea hutsik egon eta junkiek erabiltzea baino.

MARITXU KAJOIRAKO GAZTETXEKO TXANDAK

Gaur, egubakoitza, batzarra egingo dute gaztetxean, 19:00etan. Maritxu Kajoi egunean, urriaren lehen, gaztetxeako tabernako txandak bete gura dituzte. Interesatuok jo batzarrerara!

GAUR, EGUBAKOITZA, ETA BIHAR KONTZERTUAK

Udako etenaldiaren ostean, gazte batzarra hasi da ekintzak antolatzen. Gaur, egubakoitza, Elorrioko Lor eta Berrizko At taldeek kontzertua egingo dute. 22:30ean izango da eta sarrera hiru euro da. Bihar, zapatua, Lau arrasatearrek —lehenengo Spank2—, Klaun bizkaitarrek eta Txinaski legazpiarrek egingo dute kontzertua. Hori ere 22:30ean izango da, baina doan.

MUSAKOLAKO GAZTE TXOKOA MAISUEN ETXERA

Uda aurretik iragarri genizuen Musakolako gazte txokoa Maisuen etxera eramango zutela. Orain arte San Isidro elizaren eraikin berean egon da, baina aste honetan lekuz aldatu gura dute. Udal zerbitzua da eta Txatxilipurdik kudeatzen du.

BEGIRALE IKASTAROA TXATXILIPURDIN

Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urritik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuok 300 euro eta aterpetxeko gastuak ordaindu beharko dituzte. Izena emateko azkeneko eguna datorren egubakoitza, hilaren 24a, izango da. Interesatuok NAREN fotokopia, argazki txiki bat eta kontu korrante zenbakia aurkeztu beharko dituzte.

'Garraxi', ume eta gazteendako aldizkaria

I.B.

Txatxilipurdik aspalditik zeukan asmoa ludoteketako eta gazte txokoetako erabiltzaileek eurek landutako aldizkari bat argitaratzeko. 2003-2004 ikasturte bukaeran lortu zuten.

Egitasmo hori aspalditik dator. Orain dela bi urte, Itziar Bartolome ibili zen horretan, eta haren lana jarraitu dute Txatxilipurdiko lankideek. 2004ko maiatzean berreskuratu zuten ideia, eta orduetik hona lan handia egin dute.

Aldizkariaren arduradunek azpimarratutakoaren arabera, ez da erraza gazteei aisialdian lan txoak egin ditzaten konbentzitzea, baina motibatuta, lortu egin dute. Horrez gain, ludoteketan ibiltzen diren umeek ere gustura esku hartu dute aldizkarian.

Gazte txokoetako 15-20 erabiltzaileek aurkeztu dituzte lanak, baita ludoteketako ume ugari ere. Guztien lanak aldizkari baten batu dituzte, eta Garraxi izena ipini diote. Aldizkariak bi azal ditu: bata, gazteena eta bestea, umeena. Zenbaki horren 600 ale argitaratu dituzte, eta dagoeneko horiek banatzen hasiak dira. Udalekuan ibili ziren ume eta gazte guztiei bana eman zieten, eta orain, ikasturte hasieran, eskoletan oparitu dituzte.

EUREK EGINDAKO LANA IKUSTEA

Egitasmo horren helburua da umeek eta gazteek eurek egiten duten lanak zerbaitetarako balio duela ikustea. Hori eta euskarenen erabilera suspertzea, jakina. Esku hartu duten lagunak oso harro daude.

Gazteek, besteak beste, grafitien gaineko idatzi bat eta




ARRASATE PRESS

Gazte txokoetako eta ludoteketako ume eta gazteak pozik daude emaitzarekin.

marrakzi horiek egiten dituen lagun bati elkarrizketa egin diote; *Ur tanta baten istorioa* izeneko fotonobela sortu dute; karpaxoa egiteko errezeta azaldu dute; eta Txatxilipurdiko langile eta erabiltzaile batzuei elkarrizketak egin dizkiete.

Umeek egin dituzten orrialdeetan, berriz, *Satorra itsu* ipuina irakur daiteke; denbora-pasamordoa asmatu dituzte, kaleidoskopio bat zelan azaldu dute; eta kale inkesta egiten ausartu dira. Lan txukuna gazteek eta umeek egin dutena!



Angela Estetika Zentroa

100 €-ko deskontua

Laser bidezko zangoen depilazioan saio bakoitzeko egingo da deskontua

Saio kopurua norberak erabakiko du

Ferrerias 35 ARRASATE 943 79 88 23

Gorputzeko gainontzeko ataletan laser bidezko depilazioa egin nahi baduzu, zator eta prestatu ditugun eskaintza bereziak ezagutu itzazu.

ZAHARREN ETXETIK



Anbulatorioak gripearen aurkako txertoak auzoetara eramango ditu: erretiratuen elkarteetara eta auzo alkatetzetara.

Gripearen aurkako kanpaina erretiratuen elkarteetara iritsi da

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Arrasateko anbulatorioak gripearen aurkako kanpaina abiarazi du. Kanpaina hori hainbat herritarri zuzenduta dago, batez ere, gaixotasun kronikoak dituztenei; hain zuzen ere, diabeateak dituztenei edo bihotzeko, birikietako edo giltzurrunetako gaixotasunak dituztenei.

Horrez gain, gripeak gogor eragiten die orokorrean 65 urtetik gorako lagunei ere bai. Horregatik, anbulatorioko arduradun Edurne Marañonen esanetan, aipatutako lagunek gripearen aurkako txertoa hartzea garrantzitsua da; hori gomendatzen die, eta horretarako baliabideak ipi-

ni dituzte. Astelehenetik, irailaren 20tik, urriaren 31ra bitartean anbulatorioan emango dituzte txertoak, 09:00etatik 17:00etara artean.

ERRETIRATUEN ELKARTEAN ERE BAI

Horrez gain, aurreko urteetan moduan, anbulatorioak herriko erretiratuen elkarteetan eta auzo alkatetzetan ere emango ditu txertoak, zerbitzu hori herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Hain zuzen ere, honako egun eta leketan emango dituzte: eguenean, hilaren 23an, San Andresko auzo alkatetzan emango dituzte; egubakoitzean, hilaren 24an, Abaroa erretiratuen elkarteetan; irailaren 27an, astelehena, Urribarriko erretiratuen, elkarteetan; hilaren 28an, martitzena, Santa

Marinako Toki Argi elkarteetan; eta irailaren 29an, eguaztena, Musakolako erretiratuen elkarteetan. Leku horietan guztietan 12:00etatik 13:00etara bitartean emango dituzte txertoak.

ZAILTASUNAK DITUZTENEK, ETXEAN

Anbulatorioak zerbitzu hori auzoetara eramango duen arren, ezinduek etxean jaso ahal izango dute. Euren sendagile edo erizainari deitu eta berorri eskatu ahal izango diote.

Bestalde, esan beharra dago 65 urtetik gorako lagunek txertoa hartzeko ez dutela txartela eskatu beharrik izango. Gaixotasun kronikoak dituzten 65 urte baino gazteagoek, berriz, erizaintzan edo medikuen kontsultan eskatu beharko dute.

LABUR

Abaroa erretiratuen elkartearen ikastaroak hasi dira dagoeneko

Abaroa elkarteak eskulanen bi ikastaro antolatu ditu. Asun Mendizabalek eguazteneko, 15:00etatik 17:00etara, kakorratza, puntua eta bainikak erakutsiko ditu. Ines Murillok eguenero, 15:00etatik 17:30era, margotzen erakutsiko du. Besteak beste, egurrean, eztaian, kristalean eta ehunean margotuko dute. Horrez gain, aho-zapien teknika ere erakutsiko du. Jo izena ematera!

Urriaren 1ean, Maritxu Kajoi egunean, luntxa egingo dute Abaroa elkartearen

Abaroa elkartearen arduradunek aditzera eman dute urriaren 1ean, Maritxu Kajoi egunean hain zuzen ere, luntxa egingo dutela. Azkeneko urteotan, Abaroako erretiratuek jaiegun berezi hori ospatzeko ohitura hartu dute. Luntxa bazkideendako izango da, eta interesa dutenek Abaroako bulegoan eman beharko dute izena irailaren 22a aurretik.



Gimnasia eskolak, Urribarriko elkartearen

Atzo, eguena, hasi ziren Urribarriko erretiratuen elkartearen gimnasia ikastaroak. Azkeneko urteotan Iturripeko kiroldegian eman dituzte, eta aurten ere asmo hori dute, baina Iturripen egiten dabilen lanen ondorioz, elkartearen azpian dagoen etxabea, Usaetxe plazan, hasi behar izan dituzte. Hala ere, taldea osatuta dago, eta lanak bukatu artean hor jarraituko dute astelehen, martitzen eta eguenean. /I.B.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



'ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO HERRIA' LIBURUA

Zein da argazkian ikusten duzuen lantegia?
Arrastoa: gaur egun erabat eraldatuta dago lantegia zegoen inguru hura.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

San Miguel garagardoa
Seiko packa

1,86€ 309 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANTONIA ERIZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Antonia!

OHARRA: Joan den zenbakiko argazkia ez zetorrien galderarekin bat. Hortaz, oraingo astean errepikatu egingo dugu galdera bera. Barkatu eragozpenak.

ARRASATEKOHISTORIA

Gure nagusien denbora-pasetako batzuk (I)

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Arrasatearrek joan den mendearren erdialde inguruan zituzten denbora-pasa batzuen gaineko kontakizuna jaso dugu oraingo honetan:

"60. dekanan bere erabilera normaltzen zihoan heinean, Arrasateko betiko merkatal establezimenduen zerrendatik txirrin-duen alokairutegiak desagertzen joan ziren. BH eta Cil etheen produktuak eskurakorrako egin zirenean Arrasateko lau denda espezialduetan euren irabazpideen birmoldaketak pentsatzen hasi behar izan zuten. Ferrerias kalean, Markaide Olan sendiarena, Toribo Agirren - gaurko Olarte - Segundo Uriarterena, Magdalenan, Santi Altunarena eta Laubiden Joxe Agirrerena ziren bizikleten alokairutegiak. Pezeta bat ordaintzen genuen ordubeteko alokairua eta denbora tarte horrekin nahikoa zen txirrindu handi eta zamatsu haie-tatik jaistean gorputza guztiz mindua edukitzeko. Adiskideek txirrindu bana alokatzea proposatzen zutenean, hura, niretzat behintzat, tormentua zen.

Ferixalera zeraman zubiaren ondoan bazen ortutxo bat eta



'NIRE HAURTZAROKO ARRASATE' LIBURUA

Arrasatearren orduko denbora-pasa askok lotura handia zuten errekekin.

errekara jaisten zen bidexka. Han, Luis Ceciagak -divinotarren aitak- ahateak hazten zituen eta behin baino gehiagotan arrautzak falta izan zitzaizkion, gaueko umeteria eta ez hain umeteriaren "razziak" zirela-eta. Hurrengo orrialdeetan ikusi-

*Mendira egiten
zituzten irteeretatik,
Galarrako
kobazulora joatea
zuten gustukoan*

ko den bezala, arrasatearren orduko denbora-pasa askok lotura handia zuten errekekin. Arrastarako ez ezik, bainuetarako ere aproposak ziren, Unión Cerrajeraren igeritokiko instalakuntzak erabili nahi ez genituenean. Tokirik estimatuenetakoa Axeriko

"errebuelta" zen, Deba ibaiak osin luze eta sakon samarra egiten zuen gunean. Igerian egiteaz gain - batzuek txakur igeri estilo apalean- gazteek txalupak preparamen zituzten enborrekin eta, Stevenson piraten antzera, egundoko borrokak eratzen ziren talde desberdinen artean. 1960an amaitu zen toki paregabe haren historia, urte berean San Andres auzoko etxegintzaren hedapen bortitzak Deba ibaiaren desbideraketa egitera behartu baitzuen.

Mendiak erakarpen naturala zuen guran, baserri gizartearen luzapenak, artean, herriko bizi-modu arruntean tartekapen nabariak bazituelarik (...). Ezinbesteko irteera gure lehen espedizio haietan, Galarrako kobazulora eramaten gintuena zen. Kobaren gaineko leienda batzuek eta bertan Isabel II.a erregina eta bere ama Maria Kristina, 1845eko abuztuaren 21ean Santa Agedako bainuetxetik bertaraino igo zirela zioen plaka irakur zitekeela jakiteak abenturara deitzen gintuzten, eta edozein leizetara gertuketa aproposik gabe sartzea arriskutsua gerta daitekeela ezagutzen genuen arren, gure metodoetan genuen konfiantza osoa: karburua, linternak, argizariak eta sokak".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko irailaren 17a / 121. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Badatoz Besaide eguna eta Aitor Aranaren omenezkoa

U.M.

Lanpetuta dabilta Orixol Mendi Elkartean azkenaldian. Izan ere, aurten Besaide eguna antolatzea tokatu zaie. Eta bi aste barru Aitor Aranaren omenezko VIII. ibilaldia da.

Besaide eguna etzidamu izango da. Elorrioren, Arrasateren eta Aramaioren artean antolatzen dute mendizaleen omenezko egun hori, eta aurten Aramaioren txanda da. Hala, Aramaioko ordezkari handia izango da domekan Besaiden. Batetik, Emilio parrokoak esango du meza, 11:00etan. Aramaioko abesbatzak ere parte hartuko du. Haren ostean, Manex Agirrek eta Iker Agirrek bertso saioa egingo dute eta bukatzeko, Aramaioko trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen.

AITOR ARANAREN OMENEZ

Bestalde, zortzigarren urtez, Aitor Arana herrikidearen omenezko mendi ibilaldia antolatu du Ori-



ARTXIBOA

laz 150 bat lagunek parte hartu zuen Aitor Aranaren omenezko ibilaldian.

xolek. Hurrengo zapañuan izango da, hilak 25. Zazpi bat orduko ibilaldia antolatu dute; tartean, Besaide, Tellamendi, Orixol eta

Ipizte mendiak zeharkatuko dituzte, besteak beste. Interesa duenak egunean bertan eman beharko du izena, 07:30ean kiroldegian.

Haur Eskola-eta landuko dituzte osoko bilkuran

UBANE MADERA

Gai larregi barik, datorren eguaztenean egingo dute ikasturte hasierako aurreneko osoko batzarra. Betiko moduan, 18:00etan izango da. Besteak beste, Haur Eskolaren gaineko informazioa helaraziko dio alkateak udalbatzarrari. Sahararren gaineko mozio bat ere izango da.

Haur Eskolaren gaia dezente geldi dago azken urteotan Aramaion. Orain, berriz, eta zenbait gurasoren pozerako, badirudi Udala berriro ere lantzen hasiko dela gai hori alkatearen eskutik. Datorren astean izango dugu horren gaineko berri zabalagoa.

Bestelako gaien artean, zenbait dirulaguntzaren gaineko puntua landuko du udalbatzarrak eguaztenean. Udaletxeko idazkari Nagore Artamendik jakinarazi digunez, musika ikastera doazen edo eskolara kanpora doazen garraioa ordaintzeko dirulaguntzen gaineko iriz-

pideak zehaztu gura dituzte datorren asteko batzarrean.

Horrekin guztiorrekin batera, 2002-2003ko kontu orokorra behin betiko onartzea proposatuko dute.

SAHARAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA

Eta bestelako gaien artean, mozio bat eztabaidagai izango dute zinegotziek. Hain zuzen ere, Saharar herriak autodeterminaziorako duen eskubidea errespetatzeko mozioa aurkeztu dute eta hura onartu edo ez erabaki beharko du udalbatzarrak.

AUTOA KENDU BEHAR

Bestalde, Udaletik zera jakinarazi digute: datorren martitzenean, Nardeaga kaleko 19. zenbakiko garabia kendu behar dutela-eta kale hura itxita egongo dela. Hain zuzen ere, 08:00etatik 18:00ak arte izango da itxita. Horren ondorioz, Nardeagako 20. zenbakitik 30. zenbakiraino aparkatuta dauden ibilgailuak kendu egin behar direla ere jakinarazi digute.



Txirritola elkarteak pozik postal lehiaketaren emaitzarekin

Txirritola Euskara Elkarteak egin du udako postal lehiaketaren zozketa. Eta 29 parte-hartzailearen artean, Aitziber Aginagaldek eta Unai Kortabarriak Vietnametik bidalitako postalak irabazi du. Sari moduan egun bateko egonaldia irabazi dute, eurek aukeratutako lekuan: kostaldean, Nafarroan edo Araban. Emaitza ikusita, aurrerantzean lehiaketa egiten segitzea erabaki du euskara elkarteak.

LABUR

Datorren zapatu gauean antzerki-saioa izango da kultura etxean

Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta, hilaren 25ean, antzerki-saioa izango da, kultura etxean, 22:00etan. *Iturrian zer dago?* antzezlan antzeztuko du Xukan taldeak. Euskarazko antzezlan berezia da hori; izan ere, dantza, trikitia eta bertsoak daude uztartuta. Andoni Egañak eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariek parte hartzen dute saioan, bost dantzari eta bi trikitilarirekin batera. Besteak beste, euskal dantzetan oinarritutako dantzak egingo dituzte. Sarrerak bost euro balioko du. Bestalde, udako postal lehiaketan parte hartu duten postal guztiekin erakusketak ipiniko dute antzezlan egin baino lehen.

Dinamizatzaile soziokultural berria hasiko da laster lanean Aramaion

Dinamizatzaile soziokulturalaren zerbitzua handitu eta berriro esleitu dute. Horren ondorioz izango diren aldaketen artean, Aramaiora dinamizatzaile berria etorriko da. Hain zuzen ere, orain arte Zuriñe Zabalak bete duen postua Izaskun Saenz de Buruagak beteko du. Legutianokoa da bera eta Aramaiorekin ez ezik, Legutianorekin eta Arratzu-Ubarrundiarekin ere arduratuko da. Astean bi egunetan etorriko da Aramaiora: eguaztentean 08:00etatik 15:00etara eta barikuetan 08:00etatik 11:30era. Kultura taldeei laguntzak lortzen, emakumei eta erretiratuei ekimenak antolatzen, taldeak sortzen... laguntzen diete dinamizatzaile soziokulturalak.

BOTEPRONTOAN/ Esther Uriarte · Oletako auzo alkatea

“Gasaren arazoa oraingo neguan konpondu beharra dago, bestela herritarrak matxinatu egingo zaizkit”

Oletako kontuak izango ditugu berbaigai segidan, Esther Uriarte Aldai auzo alkateari (eta haren lagunari) esker:



ezean. Gure galdera da ea orain dela lau urte zergatik ez ziren kezkatu. Hodia sartu eta gero

Zenbatgarren urtez alkate?
Bosgarrena aurrean. Datorren urtean, fuera!

Seguru fuera joango zarela?
Oso seguru (barreak). Dagoeneko nekatuta nago.

Izan ere, beste gauza batzuen artean, lan asko egin dituzu...
Sartu dugu saneamendua, gasa (arazoekin), zuntz optikoa (hodia sartuta dugu baina ez dugu eroslerik), plazatik gorako herriko bidea zabaldu egin da eta orain bide txikiagoekin gabilta, baserri bideekin.

Eta hori guztiari egin eta gero hurrengo auzo alkatearendako geratu da zerbait egiteko?
Ez, ez dago dirurik (barreak). Dagoeneko zorrak-eta guzti ditugu-eta...

Baina behintzat, auzoa txukun geratzen da, ezta?
Bueno, plazako lanak egitea falta da, ez dizkigute onartu. Plaza apur bat itxi gura dugu, bestela autoz beteta egoten da.

Gasarekin zer gertatzen zaizue?
Orain dela lau urte, saneamenduari batera sartu genuen gasa. Baimen guztiak-eta egin genituen, baina orain esaten digute halako baimen batzuk ez direla agertzen. Gauzak horrela, Repsolek esan digu Industria Ministerioak ez digula gasik sartuko paper horiek azaldu

datoz halakoekin? Orain datoz baimen eske?

Eta zer egin behar duzue?
Hementxe gaude, itxaroten. Kontratu guztiak-eta ordainduta daude, jendeak sinatu beharreko baimen guztiak sinatu zituen. Dagoeneko eginda dagoen gauza baten gainean ezin duzu ezer eskatu. Bada ez dakit. Jendea haserre dago.

Hala, hurrengo auzo alkateak badu zeregina, ezta?
Hurrengoak ez. Hori lehenago konpondu behar da. Oraingo neguan, bestela herritarrak matxinatuko zaizkit... (barreak) Bukatzeko ez da ezer falta, instalazioa badabilen ikustea eta gero gasa sartzea, besterik ez, baina...

Zela dago Limitaua-ren arazoa?
Ez dakit, egia esan. Domekan datoz Otxandiokoak baso-bisita egiten; mugak ikustera etortzen dira eta domekan datoz.

Auzotarren artean zer moduz konpontzen zarete?
Ondo, ondo.

Baduzue beharren bat?
Dirua. Errepideko lanak

ordaintzeko dirua.

Eta Ibarrarekin zer moduz konpontzen zarete?
Ez dugu harreman larregi, benetan. Lanak ordaintzeko dirua eskatu behar diegu, baina eurek ere ez dute dirurik.

Noiz egingo dituzue hauteskundeak?
Datorren urteko urrian-edo.

Zer gomendatuko diozu zure partez aurkezten denari?
Hemen ez da aurkezten inor. Hemen erroldarekin egiten dugu. 18 urtetik gorako edozein aukera dezakete herritarrek.

Eta datorrenari zer gomendio emango zenioke?
Pazientzia izatea. Herritarrek edozein lekutan harrapatzen zaituzte esateko zer falta den, zer behar dagoen...

Oso gogorra izan da?
Ez, akaso lau hilabetean ez duzu ezer egiten, baina gero bi egunetan alde guztietatik sortzen dira arazoak: “Esther, gasa noiz dator? Esther, argia...”

Berak ez du esango eta lagunari galdetuko diogu: zelako alkatea izan da Esther?
Oso ona. Benetan.

Beste zerbait esateko?
Bai, beste arazo bat ere badugu: orain dela bi urte batzar bat egin genuen Otxandiokoekin edateko ura dela eta; izan ere, kendu ahal zigutenaren bikoitza kentzen ziguten. Kontratua egin genuen, baina ez dakigu betetzen duten, izan ere, errekan ur gutxi doa, sikatzen dabil Atxin.

“Plazako lanak egitea falta da (...) Apur bat itxi gura dugu, bestela autoz beteta egoten da”

“Otxandiokoek ura kentzen digutela-eta Oletako Atxin erreka sikatzen dabil”

OHARRAK

GRIPEAREN KONTRA
Datorren astelehenean hasiko da gripearen kontrako aurtengo kanpaina. Urriaren 31ra arte izango da txertoa ipintzeko aukera. Aurrekoetan moduan, 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoek (diabetesa, biriketako gaixotasuna, giltzurrunekoa...) hartu behar dute txertoa. Horretarako kontsultara joan beharra dute, astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:00etara. 65 urtetik gorakoek ez dute bolanterik behar eta etxetik atera ezin direnei txertoa etxean bertan emango diete.

ZINEMA EMANALDIK
Pare bat asteko atsedenaldia izango da barikuko zinema emanaldietan. Hala, urriaren 2tik aurrera hasiko dute egitarau berria. Bestalde, alkateak jakinarazi digu domeketako zinema zerbitzua esleituta dagoela eta seguru aski urriko aurreneko asteburuan hasiko direla filmak ematen domeka arratsaldetan.

YOGA IKASTAROA
Jakinarazi digute datorren astelehenetik aurrera hasiko dela yogaren ikasturte berria. Astelehenetan eta eguaztenetan izango dira eskolak, 18:30etik 20:00etara.



Maritxu Kajoi
egunerako osagarri bereziak



Juan Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06

ERRETRATUZAHARRA

1975-76 denboraldiko Mondrako gazteak

Futbol kontuak ditugu berbaigai oraingoan. 75-76 denboraldiko Mondrako gazte taldearen jokalaririk gehienak eta entrenatzailea agertzen dira bi argazkietan. Hara zer kontatu diguten: 75eko uztailaren 7an entrenatzailea aurkeztu eta denboraldia hasi arren, entrenamenduak uztailaren 21ean hasi ziren. Jose Luis Idigoras entrenatzailearen gidaritzapean, oso denboraldi ona egin zuen taldeak; gazteen lehenengo mailan, Eibar Urko, Elgoibar, Lagun Onak eta beste hainbat talde on egon arren, gogor entrenatu ostean, lasai eutsi zioten mailari. Taldeko kideak geroago oinarri izan ziren 77-78an Mondrako talde nagusia preferentera igotzeko.
Honako hauek agertzen

dira goiko argazkian (Iturripen ateratakoa), goian, ezkerretik hasita: J. Anjel Fernandez, Patxi Ugarte, J. Inazio Iturri, Santi Lopez, Galo Sanchez eta Juanito Barberan. Behean: Ramon Nuñez, Ramon Luengo, Javier Nuñez, E. Bolinaga eta A. Modino.

Beheko argazkian, berriz, (Deban aterata) goikoan agertzen direnez gain, honako hauek daude, goian: Aitor Perez (1), Anjel Etxabe (3), Iban Guridi (4) eta F. Uranga (5). Eta behean: Fernandez Carrasco (1), Karmelo Sanpedro (2) eta Rafael Lorenzo (5). Horiez gain, J. Arejolaleibar, J.M. Otadui Txosa eta E. Urtzelai ere baziren taldean.

Argazkia eta informazioa:
Zuloak koadrila.
Urtea: 1975.



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Isidro eliza, 1945ean inauguratua

Arrasate, langileek eraikitako herria liburuan aurkitu dugu Musakolako San Isidro eliza eraiki zuteneko argazkia. Eliza hori Union Cerrajerak emandako diruarekin egin zuten, Zigorrolako langileak mezetara joan ahal izateko. Elizaren goialdean kanpaia jarri zuten, langileak lanera deitzeko. San Isidro eliza 1945ean inauguratu zuten.



≈ 1945 Musakolako San Isidro eliza Union Cerrajerak egur-ikatza gordetzeko zuen biltegi zaharrean eraiki zuten.



2004 Datorren urtean egingo ditu San Isidro elizak 60 urte. Horren harira, datorren urteko Zigorrolako jaiak bereziak izango dira.

Uarkape
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

**Maritxu egunerako dena prest!
Ondo pasatu!!**

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

EGUZZKIGRAF →
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdia E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai&by



Ospatu Maritxu Kajoi eguna geurean!

Baster-alde jatetxea

- Zure ezkontza eguna ospatzeko leku eta giro paregabera daukagu.
- 160 lagunentzako jangela eta aparkalekua.
- Terraza berria ahur parkearekin.
- Enpresa bazkariak jangela pribatuarekin.
- Bataioak, jaunartzeak, urtebetetzeak eta lagun arteko bazkariak.



Karta eta menua ditugu aukeran.

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel./Faxa: 943 79 24 58



2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak.

Azterketak prestatzeko ikastaroak: EGA, HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK...

HABEren diploma ateratzeko azterketak EUSKALTEGIAN bertan.

MINTZAMENA lantzeko ikastaroak, ARRASATEKO EUSKARA,


MERKATARIAK, GURASOAK, BARNETEGIAK, KANPO EKINTZAK.

Erritmo eta ordutegi egokituak; txandakako taldeak.

Beka sistema daukagu. Informa zaitetz!

Matrikula epea: Irailaren 1etik 24ra.

Bulego ordutegia: Goizean: 10:00-13:00 / Arratsaldean: 15:00-18:30



Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...

HABEren diruagintzaz

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 | Faxe: 943 79 91 43 |
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

Zure ametsetako trajea dugu...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.



Maritxu Kajoi
2004

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxe: 943 79 12 62